

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Hitzaldiak, kontzertuak, ikastaroak, erakusketak, egoitza artistikoa, haurrentzako aisia eta bisita gidatua hartuko ditu.

Astelehena, 2018.eko urtarrilak 29

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu urtarrilaren 29tik otsailaren 4ra bitarteko asterako:

“Yo, la peor de todas/Ni, denotan okerrena” erakusketa-proiektuaren amaiera ekarriko du asteak. Erakusketaz gozatzeko azken aukera da, beraz, ondoko jarduera hauen eskutik: bitartekaritza-jarduera, ostiralean, Mireya Martín eta Sofía Alberok egina, eta bisita gidatua Nafarroako Museora, igandean, Mireya Martín, Sofía Albero eta Eva de la Vegarekin.



Igande honetan bukatzen den “Ni, denotan okerrena” erakusketaren irudia.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak erakusketa berria inauguratuko du ostegunean: “El Irati S.A.”, Nafarroako enpresa garrantzitsuenetako bat joan den mendean.

Gainera, Nafarroako Liburutegiak “Vestidas para un baile en la nieve. La historia de las mujeres en el Gulag” hitzaldia emango du asteartean, Monika Zgustovaren eskutik, eta haurrentzako magia-ikuskizuna antolatu du asteazkenerako, euskaraz zein gaztelaniaz.

Bestetik, Uharteko Arte Garaikideko Zentroak “Cuando tu materia deviene desborde. Fase II” ikastaroa antolatu du, Francisco Navarrete Sitjak emango duena, astelehenetik igandera, baita jabetza intelektualaren eskubideei buruzko aholkularitza-saioa ere, ostegunean. Gainera, Irati Gorostidi artistak “Gorputz airisak” egoitza artistikoa egingo du berriro.

Musikari dagokionez, Baluarte Eduardo Fernández piano-jotzailearen kontzertua emango du. Eta zinemari dagokionez, hiru saio programatu ditu Nafarroako Filmotekak: “No quiero ser un hombre” (Ernst Lubitsch, 1918), asteazkenean; “Loly” (Goyo Rodríguez, 2017) eta “En el bar” (Itsaso Arizkuren, 2014), ostegunean; eta “Pipas” (Manuela Burló Moreno, 2013) eta “La ecuación preferida de profesor” (Takashi Koizumi, 2006), ostiralean.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa: